

## OGIA ETA ARROSAK

*Ogia eta arrosak* ikustera joan nintzen. Ez zitzaidan gustatu. Ez zitzaidan iruditu Ken Loachen beste filmeen maila lortzen duenik, baina tira. Ezustekoa bikoizketarekin dator filmaren hasieratik beretik. Espainolez ari dira. Okerreko aretoan sartu naiz? Ez. Espainola bitxia da. Baina ez *hijo de la gran chingada* eta horrelakoak entzuten direlako, pertsonaia guztiak ETBko ahotsetan emandako azentu sineskaitzean entzuten ditugulako baizik. Eusko Jaurlearitzak espainoletik espainolera bikoizteko eman du dirua? Parte haundi bat behintzat bai.

Pelikula ikusita erraz inferitzen da pertsonaia nagusi guztiak elebidunak direla jatorrizko bertsioan; espainola eta ingelesa darabiltzatela batetik besterako jauzi polit, erraz eta naturalean. Bikoizketa arduradunek hau erabaki dute: ingelesa euskarara bikoiztu eta espainola espainolera: *Pan eta arrosak*, alegia. (Zorionez *Los Coyotes* taldearen kanta ez dute ukitu.) Bistan dira hori egiteko zeuzkaten arrazoiak. Argiago, emaitza ikusita, ez egiteko zeuzkatenak. Ondorioa sinplea: hau ez da bikoizteko film egokia.

Ondo dago zinean euskarara bikoiztutako filmak sustatzea. Baina nik proposamen hau egiten diet arduradunei: filmak jatorrizko hizkuntzan eman eta euskaraz azpigitulatu. Merkeagoa da, zinezaleontzat hobea, euskararentzat eraginkorragoa eta, zer esanik ez, ikastoletan hainbeste bultzatzen duten ingelesaren ezagutzarentzat lagungarria oso. Gainera, aurreztutako diruarekin euskaraz egindako filmak bultza ditzakete.

Orain 10 bat urte José 'janitor'-garbitzaile mexikarra ezagutu nuen Kalifornian. Orduko 4 bat dolar jasotzen zituen Unibertsitatea garbitzeagatik. 10-12 ordu lanean inorekin hitzegin gabe, *Bread and Roses*-ekoek ez bezala, ez baitzuen ingelesaren arrastorik. Lanegunaren bukaera aldera iristen zen gure bulegora. Euskaldun batzuk ginen entzun eta hitzegiten zioten bakarrak. Ingelesa ikasteko esaten genion; ez bereziki gringoekin hitzegin ahal izateko, haiek esaten dutena ulertzeko gai izateko baizik.